

## 1. Erronka proposatzen duten erakundeak

**ACLIMA:** Agrupalab, AAC-Acústica, Sercontrol

## 2. Erronka

**Nola lor dezakegu laborategiko sentsoreen bidez lortutako datuen oinarrizko modelizazioa egitea kausa-ondorio patroiak lortzeko?**

## 3. Balizko konponbide aplikagarriak

- Big Data eta AA
- Ingurumen-monitorizazioari aplikatutako sentsorika

## 4. Testuingurua

Ingurumen-industriak edo ekoindustriak benetako iraultza digitala bizi izan du azkeneko urteetan, eta **ingurumen-monitorizazioko balio-katea** osatzen duten enpresak ez dira kanpoan gelditu. **AAC zaratari dagokionez, Sercontrol airearen kalitateari dagokionez eta Agrupalab uraren eta lurzoruari dagokionez**, horiek guztiak ingurumen-hobekuntzari lotutako jardueretan ezagutza handia eta esperientzia duten enpresak dira, eta beren jarduera nagusia ingurumen-kalitateko datuak neurtzea eta interpretatzea da. Datu horiek neurketa espezializatutako metodo eta gailuen bidez lortu dituzte. Neurketa hori inguru kontrolatuetan, laborategietan eta *in situ* (landan) egiten da.

Ildo horretatik, erronka proposatzen duten enpresek **aukera argia ikusten dute laborategiko esparruan lortutako datuen modelizazioari dagokionez**. Horren bidez, **balioak interpretatu eta ohiko operazioetan neurtutako parametroen korrelazio eta kausalitateak** lortu nahi dira. Zentzu horretan, enpresak dituen lagin eta datuei buruzko ezagutza sortzeak baimendu egingo die balio erantsiko zerbitzuak eskaintzea etorkizunean (kanpoko 4.0 sentsorika nahikoa garatu denean, eta lagin-akats mailak oso baxuak direnean), bereziki ingurumeneko ustekabe posibleei aurrea hartzeko, prebenitzeko eta tratatzeko (esaterako, material arriskutsuen jarioa ibaiko urretan, ingurumen-kutsadurako maila arriskutsuak industria-jarioen ondorioz, etab.).

## 5. Azpierronkak eta helburuak

Enpresek laborategian egindako probetatik lortutako datuak gutxi tratatzen direnez eta laborategitik kanpo datu fidagarriak lortzea zaila denez, ohiko lanak egiteko eraginkortasunik eza eragiteaz gain, kalitatezko informazio eta neurtutako parametroen adimen eta trazabilitate eskasa dakar. Eta horregatik aurreikusten dute enpresek plataforma prediktiboa sortzea, **AAren bidez sentsoreek lortutako datuak denbora errealean korrelazioan jar daitezten laborategiko datuen tratamenduaren bidez sortutako ezagutzari esker (kausa-ondorioa)**. **Bistaratzeko plataforma bat**, etorkizunean alerta goiztiarren eta balizko arazoaren monitoretza-, atzemate- eta komunikazio-eredu adimentsua sortzea ahalbidetuko duen.